

Funtsezko baliabideak

Gure autozinea aurrera joateko eta funtzionatu ahal izateko, hainbat beharrezko baliabideak behar ditu. Bai pertsonalean, infraestrukturan, kapitalean eta guk gehitutako baliabidetan...

Alde batetik, lehen aipatu dugun bezala, filma ikusten duzun heinean, afaltzeko edo jateko aukera izango duzu. Hori eskaini ahal izateko, langileak egongo dira, bai sukaldariak, bezeroak, sarrerako pertsonalak...

Hasteko, billete saltzaileak egongo dira, hauek, Publikoaren ongietorria ematen duena da; bere arduetako bat tratu adeitsua ematea eta ahalik eta irudi onena ematea da, erabiltzaileak jasoko duen lehen inpresioa baita.

Ondoren sukaldariak egongo dira, hauek, janaria eta edariak

eskaitzen dituzten pertsonak dira, hau da, zinema-eremuan kontsumitzeko elikagaiak eskaintzen dituztenak.

Baita ere, proiektugile bat egongo, honek, oso garrantzitsua da zeren eta, Soinuarekin edo irudiekin arazorik ez dagoela ikusten duen pertsona batek proiektore bakoitzak behar bezala funtzionatzen duela zaindu behar du.

Azkenik, Sukaldariak eta zerbitzariak oso garrantzitsuak izango dira gure autozinean, zeren eta janaria aurkeztuko eta eskainiko dutelako, hau da, hauei esker ikusleak filma ikusten duten bitartean zerbait jateko edo afaltzeko aukera izango dute.



Beste aldetik, Infrastrukturari edo instalazioari ikusita beste baliabide batzuk behar ditugu, hala nola, zer eremutan kokatuko den, nolako pantaila edo montajea izango duen, karabana...

Hasteko, erabiliko dugun eremua zela bat izango da, eta honek, aire zabalean egongo da, autoak aparkatu ahal izateko.



Baita ere, Karabanari dagokionez, janaria jasotzeaz eta egiteaz aparte, mahai batzuk eskura izango ditugu bezeroak bertan esertzeko eta jateko, hemen eskainiko dugun janaria azkarra izateaz gain, janari osasungarria izango da.

Hori aparte, pantailari eta montajeari dagokionez, pantaila manualak instalatuko ditugu, non guk jaitziko eta igoko ditugu, hau da, kaperetan dauden pantaila bera edukiko ditugu.



Azkenik Kapitalari dagokionez, hainbat gauzak hartuko ditugu kontutan, hala nola, zein publizitatea izango dugun, zer teknologia, wifia...

Hasteko, publizitatearekiko, herriko edo inguruko enpresen edo denden promozioak izango ditugu, eta horren trukez, beraiek gure autozinea promozionatuko dute.



Baita ere, teknologiaren aldetik, oso gauza gutxi behar izango ditugu, hau da, wifia eta proiektorea.

Wifiari dagokionez, wifi portatila bat izango dugu, eta honek karabanen kokatuko dugu, eta proiektoreari dagokionez, berriz, pantailaren aurrealdean jarriko dugu, filma proiektatu ahal izateko, eta honek teilatu moduko bat izango du, euria egiten badu ez puskatzeko

